


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2003ko URRIA

## Euskal AEko industri jarduera %0,1 jaitsi zen 2003ko urrian

***Datu horiekin, urteko lehenengo hamar hilabeteen, industri bilakaerak %1,1eko hazkundera metatu du.***

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2003ko urrian, %0,1 jaitsi zen balio absolututan, Euskal AEko industri jarduera, 2002ko hil beraren aldean. Lan-egutegiaren balio homogeneotan, urte arteko aldakuntza %0,4 jaitsi zen. Urteko lehenengo hamar hilabeteetako hazkunde-tasa metatuak, aurreko urteko aldi beraren aldean, %1,1eko hazkundera izan du balio absolutuetan neurtuta, eta %0,7koa, lan-egutegiaren balio homogeneotan neurtuta.

### Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1998-2003



(\*) 2003ko urriko urte arteko hazkunde zuzendua

**Iturria: EUSTAT**

2003ko urrian, urte arteko aldakuntzarik positiboak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zaizkie: petrolio finntzea (%35,0), ehungintza eta jantzigintza (%17,2), elikagai-industria (%10,4), zurgintza (%4,1) eta material elektriko (%3,6) arloei, besteak beste.

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan dituzte: energia elektriko, gasa eta ura (%-9,5), garraio-materiala (%-8,2), ez-metalezko industria (%-6,3), larruaren eta oinetakoen industria (%-5,6) eta bestelako manufakturak (%-3,6) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2003ko urrian, igo egin dira kontsumo-ondasunen (%1,4) urte arteko tasak, baina jaitsi egin dira bitarteko ondasunen (%-0,8) eta ekipa-ondasunen (%-4,7) tasak.

Urteko lehenengo hamar hilabeteetan, hazkunde metatu handienak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zaizkie: petrolioaren finantza (%22,0), ehungintza eta jantzigintza (%8,1), kautxua eta plastikoa (%6,1) eta material elektrikoa (%5,4) arloei, besteak beste.

Tasa metaturik negatiboenak, berriz, honako hauek izan dituzte: larruaren eta oinetakoen industria (%-12,0), bestelako enbrosak (%-4,5), ez-metalen industria (%-1,3) eta papera, argitalpena eta arte grafikoa (%-0,7) arloek, batik bat.

Lehenengo hamar hilabeteetako aldakuntza metatuak hazkundeak izan du bitarteko ondasunetan (%1,8), baina kontsumo-ondasunak eta ekipa-ondasunak %2,1 eta %1,1 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Lurralde historikoki, urriko indizean urte arteko hazkundeak izan dira Gipuzkoan (%2,7), baina indizea %1,0 jaitsi da Arabako lurralde historikoa eta %2,2 Bizkaian. Urteko lehenengo hamar hilabeteetan, Bizkaia eta Gipuzkoak %1,2 eta %1,8ko hazkunde metatuak izan dituzte, hurrenez hurren. Araba, ostera, jaitsiera arina izan du aurreko urteko aldi beraren aldean, %0,5ekoa, hain zuzen ere.

**Taula: 2003ko URRIA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).**

| Kontzeptua                                     | Aurreko urteko hil beraren aldean |             | 2002ko urtarril-urriko tasa metatua |             | 2003ko urtarril-urriko tasa metatua |             |
|------------------------------------------------|-----------------------------------|-------------|-------------------------------------|-------------|-------------------------------------|-------------|
|                                                | originala                         | zuzendua(*) | originala                           | zuzendua(*) | originala                           | zuzendua(*) |
| <b>Indize orokorra: Euskal AE</b>              | -0,1                              | -0,4        | -1,2                                | -1,4        | 1,1                                 | 0,7         |
| Araba                                          | -1,0                              | -1,3        | 0,1                                 | -0,1        | -0,5                                | -0,9        |
| Bizkaia                                        | -2,2                              | -2,4        | -1,0                                | -1,2        | 1,2                                 | 1,0         |
| Gipuzkoa                                       | 2,7                               | 2,3         | -2,2                                | -2,3        | 1,8                                 | 1,3         |
| <b>Indizeak helburu ekonomikoki- Euskal AE</b> |                                   |             |                                     |             |                                     |             |
| Bitarteko ondasunak                            | -0,3                              | -0,8        | -0,1                                | -0,3        | 1,8                                 | 1,5         |
| Kontsumo-ondasunak                             | 1,4                               | 1,4         | 1,1                                 | 1,1         | -2,1                                | -2,4        |
| Ekipa-ondasunak                                | -4,7                              | -4,8        | -2,9                                | -3,2        | -1,1                                | -1,5        |

(\*) Lanegunez zuzendua.

**Iturria: EUSTAT**

**Argibide gehiagorako:**

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tlf:+34-945-01 75 14 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)